

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sodenak eta Elkargi elkarte abaldunak hitzarmena sinatu dute Nafarroako ETEen finantzaketa errazteko

*Erakundeak abalak emango dizkie Moderna Zigilua lortzen duten enpresei, % 4,25eko interes-tasan*

Martes, 27 de enero de 2015

Sodena enpresa publikoak eta Elkargi SGR elkarte abaldunak hitzarmena sinatu dute Nafarroako ETEen finantzaketa errazteko. Akordioa gaur sinatu dute Iruñean Sodenako zuzendari-gerente Carlos Fernández Valdivielsok eta Elkargiko zuzendari nagusi Víctor Ibarreche Asuak.



Víctor Ibarreche eta Carlos Fernández Valdivielso, hitzarmena sinatu ondoren.

Zehazki, Elkargik Sodenarekin lankidetzan ariko da abalak emanaz, eta abal horiek Moderna Zigilua lortutako enpresei kredituak lortzen lagunduko die. Kalifikazio horrek berresten du, enpresa-proiektuek Nafarroaren garapen ekonomikoaren estrategiarekin egindako lerrokatzea eta, hari esker, finantzaketako zenbait tresna eskura ditzakete, Europako Inbertsio Bankutik datorrena, esaterako.

Sinatutako hitzarmenaren arabera, Elkargik 20.000 euro eta 600.000 euro arteko ETEen proiektuak bermatuko ditu, honako hauetarako diren proiektuak: aktibo ukigarrien inbertsio edo gastuetarako (lurrak salbu), ukiezinen inbertsio edo gastuetarako (garapen-gastuak, plangintza eta finantzaketa; I+G; eta banaketa-sareak sortzea) edo enpresa-oinordetzarako.

Hitzarmen horren ondorioz, azken onuradunek merkatuko interes-tasen finantzaketa jasoko dute: % 4,25 finkoa, zehazki. Kredituak emateko gehieneko epea 10 urtekoa izango da.

**Sodena**, Nafarroako Garapen Sozietatea, SM Nafarroako Gobernuaren finantza-tresna da, Nafarroarako enpresa-proiektuen sorrera eta garapena erakarri, identifikatu eta sustatzeko, toki-mailakoak nahiz kanpotik erakarrirakoak, horretarako finantza-tresnak erabiliz, arrisku-kapitala bereziki; horrez gain, kanpoan ezartzeko aholkularitza eta laguntza ematen du ere.

Enpresa-proiektuei emandako laguntza finantzarioa arrisku-

kapitalaren bidez egiten da. Proiektu horiek Nafarroarekin zerikusia izan behar dute, eskualdearen garapen orekatu eta iraunkorrean era adierazgarrian laguntza aktiboa emanez. Laguntza teknikoa ematen da, inbertitzaile nahiz enprekin koordinazio, aholkularitza eta harremana izanez, behar duten guztia erraztuz beren proiektuak Nafarroan koka ditzaten.

**Elkargi** 1980. urtean sortutako Elkarrekiko Garantia Elkartea da. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako 11.500 enpresa txiki eta ertainek baino gehiagok parte hartzen dute bertan, abaldun moduan jarduten du, eta beren bazkideei epe luzerako finantzaketa izateko aukera ematen die; horrez gain, aholkularitza-zerbitzuak ematen ditu finantza-arloan.